



LESAKA

Prozedura exekutiboko egitateen jakinarazpena

Erreferentzia: E153000/00012/2022

Kasu bakoitzean espedientearen aipatzen diren arrazoiengatik, ezin izan da egin Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99. artikuluko 2. idatzi-zatian agindutako jakinarazpena. Horregatik, Foru Lege horren 99. artikuluko 4. idatzi-zatiak agintzen duenari jarraikiz, ediktu hau argitara ematen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta dei egiten zaie ondoko interesdunei, bulego kudeatzailera ager daitezen (Iruñeko Eneko Aritza kalea, 16 - etxabea, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara), Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean, berak zuzenean edo behar bezala ordezkatura, jakinarazpena jasotzeko. Eta aditzera ematen zaie ezen, epe hori betetzen denean agertu ez badira, egintza horiek jakinarazi zaizkiela ulertuko dela, ondorio guztietarako, epea bete eta biharamunetik.

Zegapekoei ohartarazten zaie: premiamenduzko prozeduraren edozein tramite jakinarazitzat jotzen denean, ez interesdunak ez haien ordezkariak agertu ez direlako, jakinarazitzat joko dela premiamenduzko prozedurak egiten diren hurrengo jarduketetan eta jardunbideetan, nahiz eta ez duten galduko beste edonoiz agertzeko eskubidea.

Administrazio-egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- a. Berraztertze errekurtsoa, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Lesaka, 2022ko Apirilaren 5ean.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Iñigo De Loyola Urdangarin Zurutuza

Izena	NAN/IFK	Diligentzia.	JM
	15820009B	5619512022	CC
	44555050W	8008862022	SM
	72670180R	5590962022	CC
	Y4045175H	5519002022	CC

JM zutabeko gakoak (jakinarazpen mota): CC Banku kontuak bahitzeko eginbideak, SM Lansariak eta soldatak bahitzeko eginbideak, DF Zerga itzulketak eta/edo nafarroako gobernuak aitortutako kredituak bahitzeko eginbideak, CA Kredituak bahitzeko eginbideak, RB Ondasunen eta eskubideen errekerimendua, CF Ordainketa zatikatua onartzea, PE Bahitura Probidentzia, PA Nekazaritza Politika Erkideko dirulaguntzak enbargatzeko eginbidea, RA jaraunspena onartzeko errekerimendua, RP jaraunslerei ordaintzeko errekerimendua.

